

Ignacio Arregui, Garate dohatsuaren kanonizazio prozesuko postulatzailerordea

Ignacio Arregui Cendoya jesulaguna da Garate dohatsuaren kanonizazio prozesuko postulatzailerorde berria. A. Ángel Camiñaren kargua hartu du, joan den irailaren 20an hil baitzen Bilbon Camiña. Ignacio Arreguik Giza Zientzietako, Filosofiako eta Teologiako ikasketak egin zituen, eta Gizarte Komunikazioan espezializatu zen, Milango (Italia) Unibertsitate Katolikoan. Loiola Irratian eta Euskadi Irratian lan egin zuen, eta 1986an Vatikanon Irratira destinatu zuten. 20 urte eman zituen bertan lanean. Gaur egun, Deustuko Unibertsitateko (Bilbao) jesulagunen elkarteko kidea da.